



ZABALIK DITUGUN LAN ESKAINTZAK

Hauexek dira momentu honetan zabalik ditugun lan eskaintzak:

- FRESATZEKO MAKINAKO OPERADORE ESPERIENTZIADUNAK:

Egin beharreko lanak:

Heidenhain kontrol bidezko mekanizazio-zentroak prestatzea, bulegotik garatutako Cam-en programa bat aplikatuz.

Siderurgiaren sektorerako pieza bakarraren eta piezen serie laburren fabrikazioa gainbegiratu.

Serie laburretan eta perdoi ehundarrekin lan egiten ohitua dagoen pertsona behar da.

Esperientzia: 3 urteko esperientzia eta gaitasuna eskatuko dira CNC fresatzaileak Heidenhain bidezko programazioa egin eta 3+2 ardatzeko mekanizazio zentroak prestatzeko modu autonomoan lan egiteko. Bereziki baloragarria da siderurgiaren arloan esperientzia izatea.

Formakuntza: Erdi mailako LH, goi mailakoa baloragarria.

Kontratu mota: Obra edo zerbitzuko.

Lanaldia: Lanaldi osoa asteburuetan 4. txandan (asteburuko 24 ordu * 40 lanordu).

Laneko ordutegiak hauek izango dira, 08:00etatik 20:00etara larunbat eta igandeetan eta 20:00etatik 08:00etara. Erreleboa nahi ez duten langileak abstenitzea. Zumaia.

- DELINEATZAILEA:

Egin beharreko lanak:

Diseinuak egitea, perdoi dimentsionalak eta geometrikoak zainduz, esleitutako planning-ari jarraituz.

Materialak pilatzeko, tailerrera ateratzeko eta muntatzeko materialen zerrendak egitea.

Kontrol plana prestatzea.

Dokumentazioa artxibatzea, prozeduraren arabera kodetzea.

Formakuntza: Diseinu mekanikoko edo delineazioko goi mailako heziketa zikloa.

Esperientzia: Gutxienez 2 urte siderometalurgiaren sektorean.

Esperientzia AutoCad eta Solid Edge-rekin.



Ingelesa: B2 maila.

Kontratu mota: Aldi baterako kontratua.

Lanaldia: Lanaldi osoa. Azpeitia.

- SEGURTASUN ELEKTRONIKOKO ETA SEGURTASUN SISTEMETAKO HIRUGARREN MAILAKO OFIZIALA:

Egin beharreko lanak:

Segurtasun sistemak instalatu eta mantentzea, baimenik gabe sartzearen aurkako alarmak, presentzia kontrolak, sarrera kontrolak, bideo zaintza sistemak, suteen aurkako babes sistemak, etab.

Formakuntza: Goi mailako zikloak mantentze elektronikoan, telekomunikazioetan eta sistema informatikoetan, automatizazio eta robotika industrialean.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa, baina positiboki baloratuko da.

Kontratu mota: Aldi baterakoa, enpresan mugagabe sartzeko asmoarekin.

Lanaldia: 08:30etatik 12:30etara eta 14:00etatik 18:00etara.

Bidaiatzeko prest egotea: Bai, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan.

Gidabaimena: B1 gidabaimena derrigorrezkoa da.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa, baina positiboki baloratuko da.

Soldata: Hitzarmenaren arabera. Eibar.

- KIROL-EKITALDIETAKO GRAFISMO-OPERADOREA: Grafismo-operadore bat behar da kirol-ekitaldietan telebistarako grafismo-zerbitzua duen enpresarentzat.

Egin beharreko lanak:

Formakuntza baten ondoren, lan nagusia penintsulako kirol esparruetara joatea izango da, telebistarako grafismo sistema erabiltzeko.

Formakuntza: Ez da profil zehatzik behar, informatika, programazio, telekomunikazio edo diseinu grafikoko ezagutzak baloratuko dira.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa.

Bidaiatzeko prest egotea: Ezinbestekoa, zerbitzu egunak batez ere asteburuak izanik.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa, baina ezinbestekoa da gidabaimena izatea.

Soldata: Bi aldeek adostu beharrekoa. Eibar.

- CAU INFORMATIKO TEKNIKARIA:

Egin beharreko lanak:

Hainbat bezerori urrunetik arazo informatikoak konpontzea.



Hizkuntzak: Euskara.

Formakuntza: Informatikako LH.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa. Ikasteko gogoia eta komunikazio-trebetasunak izatea da garrantzitsuena.

Lanaldia: Txandaka, goizez, arratsaldez edo zatika.

Soldata: 14.000€ gordin urtean, gutxi gorabehera. Elorrio.

- PRODUKTUA GARATZEKO TEKNIKARIA:

Egin beharreko lanak:

Ur-edukia detektatzeko sentsoare berriaren probak garatzea, sistema sentsoaretik ateratako informazioa aztertzea eta sortutako algoritmoak egiaztatzea.

Seinalearen egonkortasun-probak, emaitzak hainbat baldintzatan egiaztatzea eta sistema oro har sendotzea.

Formakuntza: Erdi edo goi mailako LH.

Kontratu mota: Beka.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

Ordainsaria: Lantokirako bidaiaren gastuak ordaintzea. Eibar.

- KALITATE-PROBAK GARATZEKO TEKNIKARIA:

Egin beharreko lanak:

OilHealth sentsoarearen kalitate-probak garatzea eta olio-erreferentziak ateratzea eta sortzea.

Sistema sentsoaretik ateratako informazioa aztertzea eta sortutako algoritmoak egiaztatzea.

Formakuntza: Erdi edo goi mailako LH.

Kontratu mota: Beka.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

Ordainsaria: Lantokirako bidaiaren gastuak ordaintzea. Eibar.



Armeria Eskolako
Elkartea
Asociación de
Armeria Eskola

Herri Onurako Izaera Emandakoa | Declarada de Utilidad Pública

Isasi, 36 | 20600 Eibar (Gipuzkoa) | Tfno. 943 20 32 44 | elkartea@armeriaeskola.eus | www.armeriaeskola.eus

Asociación de Antiguos Alumnos de Armeria Eskola, de EIBAR | Inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco, Sec 1, nº RPG 187 | CIF G20105524

Gure lan eskaintzaren bat interesatuz gero, bidali zure CV-a lanpoltsa@armeriaeskola.eus helbidera eta enpresari bidaliko diogu.

Edozein zalantza baduzu gurekin jar zaitezke harremanetan.

Informazio gehiagorako: Eider Vicente.

943 20 32 44.

lanpoltsa@armeriaeskola.eus